



TXIKITTO!

2024ko azaroa 227. zenbakia



**EUSKARAREN EGUNEAN
IXOTU EUSKERIA!**

AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	BANAKIXAN.....	10
IKASLEEKIN	4-5	BANAKIXALA	
BERRIKETAN		DENBORAPASAK	11
IKASTETXEETAKO.....	6-7	LEHIAKETA	13
BERRIAK		ZER IRAKURRI	
EUSKARAREN EGUNA ..	8	BITXIKERIAK.....	14
GURE NAGUSIEKIN		IPUINA.....	15
BERBETAN.....	9	ZU BAI MARGOLARI...	16

 **eta kitto!**
euskara elkarteak

Argitaratzailea
“...eta kitto!”
Euskara Elkarteak
Urkizu, 11
20600 Eibar
Tel: 943 206776

**Erredakzio-
kontseilua**
Maider Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maider Aranberri eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Silbia Hernandez

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





- Ama, eskolan lagunek kanpaia esten didate!
- Noiz izan da hori?
- Seiretannn, zazpietannnn, zortzietannnnnn...



Gizon hura hain zen altua, non jogurt bat jan zuen eta sabelera iritsi zitzaionerako, iraungita baitzegoen.

- Eroetxe batean, ero batek idazten ari den beste bati esaten dio:
- Norentzat da gutun hori?
 - Niretzat.
 - Eta zer esaten diozu bertan zure buruari?
 - Nola nahi duzu hori jakitea? Bihar edo etzi arte ez dut jasoko eta!



- Zer esan zion esneak azukreari?
- Kafean elkartuko gara.
- Zer esan zion errepideak kotxeari?
- Ahal beste korrika egin arren, ez zara sekula ni baino lehenago iritsiko.

Jaimito aitxixarekin doa kaletik eta lurrean goxoki bat ikusten dute. Jaimito hartzera doa eta aitxixak esaten dio:

- Ez dira lurretik gauzak hartzen, Jaimito!
- Orduan, aitxixak estropuz egiten du eta lurrera erortzen da.
- Jaimito, lagundu!! , esaten dio aitxixak Jaimitori. Eta Jaimitok erantzuten dio:
 - Ez, aitxitxa!! Ezin dira lurretik gauzak hartu.





Naturzaleak Amañan

Amaña herri-eskolako Chadli Lamjafar Errami, Nerea Gonzalez De los Reyes, Yasmin Deza El Hafidi eta Nabil El Allali El Gabhalirekin egon gara eta natura izan da eurekin landu dugun gaia. Euretako batzuek naturaz gozatzez dute mendian ibiliz, hondartzara joanez, eta beste batzuek animaliekin egotea dute nahiago. Hori bai, animalia batzuek ez dituzte hain gustoko, eta batzuei beldurra ere badiete! Laukoteak, ostera, argi du natura zaintzeko lan egin behar dugula, etorkizunean ere naturaz gozatzeko aukera izan nahi dutelako.

BIDEOA
YOUTUBEN



DI-DA batean

- 1- Zein da zure animalia gustokoena?
- 2- Eta gutxien gustatzen zaizuna?
- 3- Zein da zure lore edo landare gustokoena?
- 4- Itsasoa ala mendia?
- 5- Irla batera joango bazina, zer hiru gauza eramango zenituzke?
- 6- Zein da zure urtaro gustokoena?
- 7- Munduko zein toki gustatuko litzaizuke bisitatzea?
- 8- Eta nora ez zinateke joango?
- 9- Eguzkia ala ilargia?

Elkarrizketa dibertigarri hau ...kitto! Euskara Elkartearen Tik Tok kontuan duzue!



CHADI LAMJAFAR

- 1- Linterna-arraina
- 2- Kaskabel sugea
- 3- Lau solairu dituen landarea
- 4- Mendia
- 5- Arropa, janaria eta maleta
- 6- Udaberria
- 7- Antartida
- 8- Australia
- 9- Ilargia



NEREA GONZALEZ

- 1- Koala
- 2- Krokodiloa
- 3- Larrosa
- 4- Itsasoa
- 5- Manta, ura eta janaria
- 6- Uda
- 7- Mexiko
- 8- Israel
- 9- Eguzkia



YASMIN DEZA

- 1- Txakurra
- 2- Krokodiloa
- 3- Jasmina
- 4- Itsasoa
- 5- Ura, janaria eta manta
- 6- Uda
- 7- Buenache (Cuenca)
- 8- Txina
- 9- Eguzkia



NABIL EL ALLAL

- 1- Katua
- 2- Armiarma
- 3- Ez dakit
- 4- Itsasoa
- 5- Ohea, arropa eta janaria
- 6- Udaberria
- 7- Frantzia
- 8- Antartida
- 9- Eguzkia



URKIZU

Aurten gure eskolan irakurketa bultzatzeko proiektu batean sartuta gaudenez, urriaren bigarren astean “Irakurle sorpresa” jarri genuen martxan. Ikasleek irakur saio berezia jaso zuten gelan eskolako beste irakasleek eskainia. Saio arrakastatsuak izan ziren! 6. mailako ikasleek Gureak lantegira bisita egin zuten. Zinemari dagokionez, Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleek “Amamu” filma ikusi zuten Coliseon. Bukatzeko, azaroaren 1an, astelehena, Gaztainerre eguna ospatu genuen eskolan urtero bezala. Gurasoek gaztainak erre zituzten beheko jolastokian eta LHko ikasleei banatu zizkieten. Gaztainerreko tradiziozko abestiak abestu genituen eta arratsalde zoragarria pasa genuen denok.



ALDATZE

Urriaren 22an, Euskadiko Klima eta Energiaren astean, ASTEKLIMA izan da Aldatzen. LH 6. mailako ikasleok beharrezko trantsizio energetiko eta klimatikoaren inguruan hausnartu eta kontzientzia hartzeko aukera eduki dugu. Zientzian murgilduta hainbat esperimentu egin genituen. Aldaketa klimatikoaren ondorioak hobeto ulertzeko oso lagungarria izan zen tailerra. Etorkizuna gure esku dago, eta ASTEKLIMA bezalako proposamenek egoera ezagutu, ardura hartu eta hobetzeko ekintzak aurrera eramateko gaitzen gaituzte. Ekintza oro, txikia bada ere, garrantzitsua da!

ARRATEKO ANDRA MARI

3. eta 4. mailako ikasleak Eibarko liburutegia ezagutzera joan ziren. Bertan tailertxo bat burutu zuten. Urriaren 31n Arimen Gaua ospatu genuen eskolan. Geletan, kalabaza, mamu... kareta egin zituzten. Bestalde, Euskal Herrian jai hau nola ospatzen zuten gogoratu genuen. Eguna girotze aldera, 6. mailako ikasleek izara zaharrak jantzi eta HHko eta LHko 1. ziklokoen jolastordura joan ziren eta beraiekin jolasean ibili ziren. Bestalde, gure 6. mailako ikasleak Manu Muniategiandikoetxea artistarekin lanean hasi ziren. Aurten ikastetxe askoren artean, aukeratuak izan gara Guggenheim museoko “Artea Ikasbidea” proiektuan parte hartzeko eta oso pozik gaude!!!!





SAN ANDRES

Azaroaren 5ean eta 7an, 5. eta 6. mailako ikasleak Andretxeara joan ginen “Luminiszentek” erakusketa ikustera. Oso interesgarria izan zen. Bertan, munduko hainbat herrialdetan (India, Palestina eta Lakota Nazioa) bizi, sufritzen duten eta borrokatzen diren emakume anonimoen istorioak aztertu genituen eta egoera horiei buruz hausnarketa egin. Euskal Herriko gizartearen dagoen ezkutuko arrazakeria eta irudi fisikoak duen eraginari buruz ere hitz egin genuen.



ITURBURU

Iturburuko 4. mailako ikasleak Busturialdera jo dugu bertako inguru eta animalia zoragarriak ezagutzera. Goizean autobusa hartu eta Madariagako Dorretxea ezagutu genuen. Bertatik paisaia behatu eta prismatikoen laguntzaz txori ezberdinak ikusteko aukera izan genuen. Hortik padurarainoko ibilbide zoragarria egin eta bertako karramarro, txoriak eta landaredia ikusi genituen. Ekoetxe Museoan, bertako mendi, itsaso eta padurari buruz gauza berriak ikasi eta topatu ditzakegun izaki bizidunei buruzko informazioa jaso genuen.

LA SALLE

Ikasturtea aurrera doa eta egin dugun guztia kontatzea eta gogoratzea zaila egiten ari zaigu dagoeneko. Orain San Andresei begira gaude denok, gure azoka eta gure dantzak prestatzen, baina aurretik, LH 2. mailakoak Lurraskan izan ziren baserriko bizitza ezagutzen. LH 3. mailakoak, bitartean, Kutxaespaziora bisita egin zuten. 4. mailakoak Aurrehistoria lantzen ibili dira eta Ekainberriko kobazuloa ezagutu zuten. Gure 4 eta 5 urteko txikiak zinemara joan ziren Coliseora eta nagusienak aldiz, IrriSarri Land-en primeran pasatzeaz gain, skatelari bihurtu zaizkigu eta gure herriko aitona-amonei irrifarre bat ateratzen egon ziren San Andres Nagusien Egoitzan. Azokan ikusiko gara!!! ;)



AMAÑA

Amaña eskolako 4. mailako ikasleok baratzera joan ginen azaroaren hasieran. Gutako bakoitzak porru eta tipulina bat landatu genituen, guztira 32! Horretarako lehenengo porruak eta tipulinak alboz ondo ipini eta gainetik lurrarekin estali genituen. Bukatzeko, ureztatu egin genituen. Pare bat aste barru, nola hazten ari diren ikustera joango gara. Kontatuko dizuegu zer eman duen!



Ixotu euskeria!

Badator euskararen eguna! Abenduaren 3a hor bertan dugu, eta euskaltzaleok, euskaldunok, euskara maite dugunok badugu zer ospatu. Gogoratu, abenduaren 3an Untzagako harmailetan elkartuko garela argiz betetako ekintzan parte hartzera!

Ixotu euskeria! Ez dein argixa emetau. Hori da aurtengo Euskararen Eguna Eibarren izango duen goiburua. Eta guztiok elkarrekin aldarrikatu eta ospatuko dugu ozen-ozen, Eibarren euskaraz bizi nahi dugula eta gure hizkuntza maite eta erabiliko dugula. Ia egia den, e??

19:00etan Untzagako harmailetan elkartuko gara, hori bai, etxetik ekarri argia ematen duen zerbait: frontala, kriseilua, linterna... Nahi duzuen. Eta guztiok elkarrekin, azkeneko egunotan ensaiatzen ibili garen koreografia egingo dugu. Orri honetan duzue koreografiaren bideoaren QR kodea. Erakutsi etxekoei eta ikas dezatela eurek ere. Ez da bat ere zaila eta guztion laguntzarekin polita geldituda.

Eskoletan ere jakin badakigu bazabiltzatela zuen ekintza propioa egiten. Bidali hurrengoan argazkiak, egin duzuen lan zoragarria ikusteko irrikiz gaude-eta.

Beraz, badakizue. Ensaiaitu ondo-ondo eta egunean bertan gerturatu zaitezte zuek eta zuen inguruko denak Untzagara, denok elkarrekin argiztatu dezagun herria, euskera ixotuko dugu, ez dein argixa emetau!



koreografiaren bideoa



Arrate eta Elena amama-biloba elkartu ditugu oraingoan, Aldatze ikastetxean. Eta hona hemen galdera beren aurrean zer erantzun digun bikote jator honek.

Zer izan nahi zenuen/duzu nagusitan?

A: Misiolaria.

E: Polizia edo futbolaria

Zer egiten duzu asteburuetan?

A: Soziedadera joaten naiz lagunekin.

E: Mendira joaten naiz edo lagunekin gelditzen naiz.

Zer ikusten duzu telebistan?

A: Serieak.

E: Clan, Disney Channel.

Zein musika edo talde gustatzen zaizu?

A: Boleroak.

E: Bulego.

Abesti bat?

A: Mi viejo San Juan.

E: Hegan (Bulego).

Jatekorik gustukoena?

A: Babarrunak.

E: Patata frijituak.

Dirutza bat irabaziz gero, zer egingo zenuke?

A: Hotel batera joango nintzateke maletarik gabe, han erosiko nuke dena.

E: Jostailu-denda batera joango nintzateke.

Pelikula bat?

A: Aquaman.

E: Avatar.

Jolas bat?

A: Kartak.

E: Pi recuento, ezkutaketen antzekoa.

Zer gosaltzen duzu?

A: Fruta, kafea eta tostada

E: Esnea eztiarekin eta jogurta.

Ze ordutan oheratzen zara?

A: 22.15ean.

E: 20:00etan.

Elene, zenbat balio du ogi batek?

E: 5 euro?

Eta amama, zenbat txikle batek?

A: Euro bat?

Zer 3 gauza eramango zenuke irtate batera?

A: Liburu bat, beste liburu bat eta beste liburu bat.

E: Liburu bat, janaria eta txalekoa hotzetik babesteko.

Zer entzuten duzue irratian?

A: Tertuliak.

E: Ez ut irratia entzuten.

Ametsetako oporrak nora?

A: Kruzera bat egingo nuke

E: Disneyland Paris.

Zein izan da asmakizunik onena?

A: Labadora.

E: Hegazkina.

Elene, zein izan zen Urtain?

E: Zein???

Arrate, zer da Basakabi?

A: Pilota-jolas bat?



BAÑAKIXAN BAÑAKIXALA



Aries

martxoak 21-apirilak 20

Kontuz jaten duzunarekin, hurrengo asteetan sabelak ez dizu bakean lagako-eta. Baina zer nahi duzu ba, egun osoan litxarreriak jan eta jan bazabiltza! Amatzoren pureak ondo egingo dizu.



Leo

uztailak 21-abuztuak 20

Noizko kirola egitearena? Asko atzeratzen ari zara eta bada ordua. Alpertuta zabiltza azkenaldian, ezta? Ba jaiki derrepentean ipurdia sofatik eta mugitu! Baaaai, dantza egitea ere kirola da!



Sagittarius

azaroak 21-abenduak 20

Zeinen ondo pasatzen duzun lagunekin, ezta? Harreman sanoa eta polita duzue, jarraitu horrela. Baina badakizu hori landare bat zaintzea bezalakoa dela, e? Mimatuz, zaindu, ureztatu, argia eman...



Taurus

apirilak 21-maiatzak 20

Fin zabiltza eskolan eta horrek izango du merezitako saria. Segi horrela. Bestalde, izarrek diotenez, kirolean ere fin ibiliko zara hurrengo asteetan. Zorteko zenbakia 7 eta kolorea horia.



Virgo

abuztuak 21-irailak 20

Udako oporretan pentsatzen?? Gabonak ere ez ditugu pasatu barren! Pazientzia izan beharko duzu, sentitzen dut esatea baina oraindik egun aaaaaasko falta dira udarako.



Capricornus

abenduak 21-urtarrilak 20

Datozen asteotan inguruko baten batek ezustekoa emango dizu. Adi ibili zaitetz, gutxien espero duzunean izango da-eta. Bestetik, 4 zenbakiak zortea ekarriko dizu eta zure kolorea gorria izango da.



Gemini

maiatzak 21-ekainak 20

Etxekoak eta bizilagunak gogaituta dituzu, dutxan sartu eta kantuan, gosaltzen hasi eta kantuan, pijama janzten eta kantuan... Ondo dago, baina dena neurrian, bale? Sikiera ondo entonatuko bazenu...



Libra

irailak 21-urriak 20

Datozen asteotan fin ibiliko zara euskara, matematika eta gizarte ikasgaietan. Gainerakoetan ez horrenbeste; beraz, adi ibili eta denbora gehiago eskaini behar badiezu eskaini, mereziko du-eta.



Aquarius

urtarrilak 21-otsailak 20

Arraina ez da itsasoan ikusten dugun animalia zoragarri hutsa. Badakizu jan ere egiten dela, ezta? Ez dizut esaten egunero jatea, baina noiz jan duzu azkenekoz, otsailean...? 2018an??



Cancer

ekainak 21-uztailak 20

Hurrengo asteetan 3 zenbakiak zortea ekarriko dizu; zure kolorea urdina izango da eta animalia gepardoa. Buzoian begiratzeko ohiturarik baduzu? Ba datozen egunotan adi ibili!



Scorpius

urriak 21-azaroak 20

Bromak eta txantxak egitea ondo dago baina marra gorririk pasatu gabe, entzun? Gauza bat da denak elkarrekin barre egitea eta beste bat da baten bati iseka egitea. Hori ez dago ondo eta zuk badakizu hori.



Piscis

otsailak 21-martxoak 20

Zu baino azkarragorik ez dago! Maridomingi eta Olentzerori gutuna idatzita eta bidalita! Zu bai zu! Ia ohea egiteko, erropa labadoran sartzeko eta etxekolanak egiterako orduan hain bizkorra zaren...

HIZKI-ZOPA

Itsasoko animaliak

B	A	L	E	A	O	A	E	J	O	I
M	U	S	A	R	R	H	O	Z	Z	T
A	A	O	N	M	Ñ	Q	U	U	K	S
P	E	R	O	P	O	P	R	Q	O	A
O	R	O	R	D	D	P	O	R	S	
R	O	S	A	A	E	H	R	O	R	A
A	N	U	T	A	Z	M	S	N	O	L
M	A	R	I	N	A	O	H	L	K	D
N	D	O	R	D	O	K	A	M	O	I
O	R	H	O	D	K	Z	A	R	I	A
P	O	P	A	A	K	O	N	R	A	M

- | | | | |
|-------------------|---|------------------|---|
| <u>Balea</u> |  | <u>Doradoka</u> |  |
| <u>Izurdea</u> |  | <u>Musarra</u> |  |
| <u>Marratza</u> |  | <u>Korrokoia</u> |  |
| <u>Itsasaldia</u> |  | <u>Atuna</u> |  |
| <u>Marmoka</u> |  | |  |



KODE SEKRETUA

Kode Sekretua asmatu

T	K	A	U
5×2	$30 + 1000$	$300 + 4$	$510 + 315$

1.030	304	10	825	304

KOLORETAKO ARRAINAK

Egin kalkuluak eta etxe beldurgarri hau margotu




- $92:4 =$ Laxorra
- $86:2 =$ Gisa
- $75 \times 4 =$ Belza
- $10 \times 12 =$ Gernate



LEHIAKETA

7 DESBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **ABENDUAK 5** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



AURREKO ASTEKO IRABAZLEA

Aupa MANAL, txapeldun! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko bisera zuretako! ZORIONAK!



Klera 6 urtetik aurrera

Gerra baten erdian harrapatua dagoen ume batek zer eskatzen dio bizitzari? Nola hitz egiten dio Heriotzari? Bizitzari eskutik heldu nahi dion ume baten istorioa duzu honoko hau.



Ezin ezetz esan 8 urtetik aurrera

Herri txiki eta berezi honetan, inoiz ezagutu ez den fenomeno bat gertatu zen: EZ hitza erabat desagertu zen jendearen aho eta bihotzetatik... Ez zuten EZ bezalako hitzik ezagutzen, ezta horren beharrik sentitu ere.



Mirabella eta sorginen basoa 10 urtetik aurrera

Mirabella desberdintasunak egiten du berezi. Haren ama sorgina da, eta aita maitagarria, eta Mirabellak bietatik gorde du zerbait. Eta... nola ez! Isadoraren lehengusina nagusienari ikaragarri gustatzen zaio endredoak sortu eta haietan murgiltzea! Mirabella eta familia osoa sorginen gustuko oporrak igarotzera abiatu dira.



BITXIKERIAK

Arnasten duzun oxigeno guztiaren %20 zure garunak erabiltzen du.



Inurriek bi urdail dituzte. Bata bere elikagaiak gordetzeko da, eta bestea beste inurri batzuekin partekatuko dituen elikagaiak gordetzeko.


Katuek euren bizitzaren %70 baino gehiago lo egiten dute.





EIBARTIK SATURNORA

Gau beltz batean, Aitor izeneko ume batek alien bat ikusi zuen Urki auzoan eta hurrengo egunean, ostiralean, tutoretza orduan kontatu zuen. Ikaskide batzuek sinetsi zuten, baina beste batzuek ez, Halloweeneko mozorro bat zela uste zutelako. Astelehenean, eskutitz bat aurkitu zuten irakaslearen mahaian. Irakurri zutenean, Aitorrek ikusitako alienarena zela ikusi zuten. Eskutitzak honako hau zioen:



Bi egunez pistak jarraitu zituzten eta azkenean, Unben aurkitu zituzten ihesi, zientzialariak atzetik zeudela. Alienak laguntzeko, eskolara eraman zituzten eta hurrengo egunean Saturnora joatea erabaki zuten.

Goizean goiz, espaziora abiatu ziren eta haien lehenengo geralekua Marte izan zen. Espazio ontzitik ikusi zuten gorria zela eta urik ez zeukala. Gainera, haize asko zegoen eta hurrengo planetara joatea erabaki zuten erosoago egoteko. Bapatean, susto handia hartu zuten ez zekitelako Marte eta Jupiterren artean asteroideen eraztun bat zegoela eta haien espaziontzia matxuratu egin zen.

Asko kostata, Jupiterrera heltzea lortu zuten, baina arineketan Saturnora joatea erabaki zuten Jupiter ekaitz erraldoi bat dela ikustean. Lasai egongo zirela uste zutenean, bertako alienen eraso jaso zuten zientzialariak zirela uste zutelako. Aitor eta bere gelakideak txarrak ez direla azaltzen saiatu ziren baina alienak ez dute euskera ulertzen eta keinuak erabiltzen saiatu ziren. Eskerrak Aktuls eta bere lagunak espaziontzitik irten ziren dena azaltzeko.

Denak salbu zeudela ospatzeko festa bat antolatu zuten eta erabaki zuten, zientzialariak bueltatzen baziren, ez zutela haien kontra borrokatuko. Horren orde, hitz eginda, adostuko zuten esperimendu horiek bolondresekin egin ahal zirela Saturnon. Alienak familia eta lagun ondoan egon nahi zuten eta ideia ona iruditzen zitzaien zientzialariei laguntzea esperimenduak gauza on baterako zirelako. Zientzialarien esperimendua COVID-19aren aurkako medikamentu bat sortzea zelako.

Aktulsen hizkuntza akronostomoa zenez, Aitor eta bere lagunak, alienei euskera apur bat erakutsi zieten zientzialariekin komunikatu ahal izateko eta haiek ere akronostomo pixkat ikasi zuten. Aktulsek bi hizkuntzak ezagutzen zituenez, oso lagungarria izan zen denentzat.

Aste baten ondoren, zientzialariak etorri ziren berriro ere alienak bahitzera, baina, Aktulsek, bere lagunak eta familiakoek esan zieten esperimenduak bolondresekin egin ahal zirela Saturnon. Zientzialariei ondo iruditu zitzaien eta barkamena eskatu zuten. Aitorren, Aktulsen, zientzialarien eta lagunaren artean, COVID-19ko pandemia moztea lortu zen Lur planetan.

Ala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Saturnoko plazan.



ZU BAI MARGOLARI!

